


# Gerra



UXUE APAOLAZA LARREA

**P**rezioak igo direlako, “dena igo da”, horregatik gogoratzen gara gerraz. Ez du ematen, beraz, gu gerran gaudenik. Baina denok sentitzen dugu gero eta gertuago, hori pentsatzeko hitzak ematen baitzaizkigu: “Mundu Gerra”, “arma nuklearrak”... eta agintari ero bat. Gerraren mehatxua han exotiko hotz batean kokatu dugu, handik iritsiko zaigu, beraz, gizon bakar baten delirioen erruz. Konponbideak erraza dirudi, gizon hori gelditu behar dugu; baina, lasai, gure partez egingo baitute gerra, sos batzuen truke, armagintzak behar dituenak. Nor ez dago prest sos horiek emateko?

“Zer dio Errusiako propagandak Ukrainako gerrari buruz?”, “Putin, bere propagandaren biktima”, “Europar Batasunak Errusiako propaganda kolpatu nahi du, lau telebista kate kenduta”... Zertarako balio dit niri Errusiako propaganda erabiltzen duela jakiteak? Propaganda hori ez zait iristen, ez dago ni irensteko arriskurik. Ni hemengoan propagandak irentsiko nau. Erraza daukate, gehienetan, iruditeria eta manerak konpartitzen ditugu, Mendebaldekoak. Non daude herritarrei propaganda deszifratzen lagunduko dieten historialariak? Bagenekien historia ikasteak honetarako balio duela? Bagenekien zerbaitegatik desagertzen ari direla jakintza batzuk? Institutuetan ez dute Bigarren Mundu Gerrako adibiderik behar propagandaren gaia lantzeko; nola lortu dute Estatu Batuen erabaki eta interesei aurpegi errusiara jar diezaien, adibidez? Propaganda deszifratzen jakingo bagenu, agian, kalean geundeke zentimo bakar bat ere, tiraxinas bakar bat ere bidal ez dadin gure moduko herritarrek hiltzeko. Manerak manera, ezin du hain zaila izan ikustea Biden eta Zelenskyren interesa ez dela ez bakea, ez demokrazia, ez justizia, ez herritar arrunten bizitza. Etsai boteretsuak ditugu, fanatiko arriskutsuak dira, baina ez daude Errusian. ●



## Txina

Txinak Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra eteteko bake plana aurkeztu zuen joan den ostiralean, Errusiak Ukraina inbaditu zuela urtebete bete zenean. AEBek, berriz, armetan 500 milioi gehiago agindu dizkiote Volodimir Zelensky Ukrainako lehendakariari.

## Nuklearrak

Errusiak AEBekin arma nuklearrak kontrolatzeko zuen ituna moztu du. Putinek adierazi du “antzerki hutsa” dela akordio hori. Mendebaldeari egotzi dio gerraren erantzule izatea, eta Errusia soilik “indarra erabiltzen” ari dela “defendatzeko”.

## Adierazpen askatasuna

Urtarrilaren 14an GKSko pankarta bat, ikurrinak eta Nafarroako bandera kendu zituen Espainiako Poliziak Sadarren. Orain, kargutik kendu dute Osasunako Segurtasun zuzendaria. Klubeko Zuzendaritza Bartzordeak adierazi du “oso larria” izan zela gertatutakoa.